

Ipuin kontaketa ugari eta irakurketa txokoak izango dira Sanz Enean gaurtik

Zarauzko apirileko egitaraua Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan antolatu dute

ZARAUTZ.

Zarauzko Sanz Enea liburutegiak apirileko egitaraua antolatu du eta Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan izango dira ekin-tza ugari hilabete honetan.

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan ipuin kontaketa eta irakurketa txokoaren saioak eskainiko dituzte. Urtero bezala, gaur ospatuko dute Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta Hanz Christian Andersen idazlearen jaiotza. Honela, Pello Añorga gerturatuko da gaur Sanz Eneara 4 urtetik gorako haurrentzat ipuinak kontatzeko. Hitzordua 17.30ean izango da.

Hilaren 9, 16 eta 30ean Haur Liburuaren Egunaren inguruan irakurketa txokoak izango dira Miriam Mendozaren eskutik. Interesatuak 17.30ean agertu beharko dute Sanz Eneara. Bestalde, Liburuaren Egunaren baitan, urtero bezala, hilaren 23an, Miguel De Cervantes Saavedra idazlearen jaiotza ospatuko dute Zarautzen ere. Horretarako, Pello Añorgak haurrentzako kontaketa saioa eskainiko du 17.30etik aurrera. Hilaren 24ean aldiz, XXV. Lizardi Saria literatur lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

Elkartasun kanpaina Urtero bezala, Sanz Enean apirilean zehar, Elan-Euskadi, Hegolan eta Saharautz Gobernuz Kanpoko Erakundeak laguntzeko, liburu bilketa egingo da. Sanz Enea liburutegiak bildutako materiala hiru GKEren artean banatuko du kanpaina bukatzean. Beraz, bizilagunek liburuak, CD, bideo, DVD edo bestelako materiala eraman dezakete Zarauzko liburutegira kanpainen parte hartzeko. >a.L.